



ARTZINIEGAKO UDALA

AKTA

Saioa: Osoko Bilkuraren ezohikoa

Eguna: 2019ko ekainak 26

Ordua: 19:05 – 20:00

Lekua: Udaletxeko Bilkura Gela

Bertaratuak:

Joseba Mirena Vivanco Retes
Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin
Arkaitz San Jose Martinez
Unai Gotxi Kastrexana
Encina Castresana Astarloa
Jose Miguel Vadillo Ribacoba
Miren Izaskun Perez Barragan
Joseba Elejalde Ribacoba

Ez dira agertu: Alazne Lafragua Ureta, ez bertaratzearen arrazoia azaldu duena.

M^a Ascension Hormazabal Meabe, Idazkari eta Kontu-hartzailea.

Saioa hasita eta lehendakariak publikotzat jo ostean, 19:05etan, gai-zerrendako puntuak ezagutarazi dira, eta akordio hauek hartu dira:

Alkatea: Arratsalde on. Lehenik eta behin, eskerrik asko legegintzaldi honetako lehen Osoko Bilkurara etortzeagatik. Gaurkoan jorratuko ditugun gaiak Udal Antolakuntzakoak dira, hala nola, Udal taldeen eraketa, Batzordeen antolakuntza, Osoko Bilkuren datak, Alkatearen dedikazioa eta Udalaren ordezkarien eta Alkateordearen izendapena.

Arratsalde on, legealdi honetako lehen osoko bilkurari ekingo diogu, ezohiko saio honekin, eta gai-zerrendako lehen puntuarekin hasiko gara:

1.- Eratutako Udal Talde Politikoen berri ematea.

Alkatea: taldeen eraketari dagokiona irakurriko dut.

"ERATUTAKO UDAL TALDE POLITIKOEN BERRI EMATEA.

1.- "EUSKO ALDERDI JELTZALEA" UDAL TALDE POLITIKOA

2019ko ekainaren 12an, 1775 sarrera-zenbakiarekin, idatzi hau aurkeztu zuten Erregistroan:

Artziniegako Udaleko Alkate/presidenteari:

"Beheran sinatzen duten pertsonak, Artziniegako Udaleko zinegotzi izaeraz, idatzi honen bidez Udal Talde modura eratzeko gure nahia adierazten dugu, "Eusko Alderdi Jeltzalea - Partido Nacionalista Vasco (EAJ-PNV) Udal Talde" izenarekin.

EAJ-PNV Udal Taldeko bozeramailea Encina Castresana Astarloa andrea izango da, eta ordezkari bozeramailea Jose Miguel Vadillo Ribacoba jauna izango da.



Sinatzaileak: Encina Castresana Astarloa, Jose Miguel Vadillo Ribacoba eta Miren Izaskun Perez Barragan.

Artziniegan, 2019ko ekainaren 12an”.

2.- “EH BILDU” UDAL TALDE POLITIKOA

2019ko ekainaren 20an, 1870 sarrera-zenbakiarekin, idatzi hau aurkeztu zuten Erregistroan:

“Kontutan izanda 2019ko maiatzaren 26an izandako Udal hauteskundeak eta Udalbatza ekainaren 15ean egindako osoko bilkuran eratuta, Udal jarduetarako efektuetara Euskadiko Toki Erakundeei buruzko, apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 34.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, Udalbatza Buruari zuzendutako idatzi honen bitartez, EH BILDU taldea politikoaren Udal taldea eratu dela jakinarazten diogu, zeina ondoren agertu garen eta udal talde hau osatzen dugunok sinatzen dugula: Joseba Vivanco Retes, Unai Gotxi Kastrexana, Alazne Lafragua Ureta, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin eta Arkaitz San Jose Martinez.

Honez gain Talde honen bozeramaile bezala Arkaitz San Jose Martinez izendatzen dugu. Eta ordezkari bozeramaile bezala Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin.

Artziniegan, 2019ko ekainaren 19an.

Celebradas las Elecciones Municipales el 26 de mayo de 2019, y constituida la nueva Corporación en sesión celebrada el día 15 de junio, a efectos de la actuación Corporativa y de conformidad con lo previsto en el artículo 34.5 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de instituciones Locales de Euskadi, mediante el presente escrito dirigido al Presidente de la Corporación, se pone en su conocimiento la constitución del Grupo Político Municipal del Partido EH BILDU, que firmamos las personas que lo integramos, y que a continuación reseñamos: Joseba Vivanco Retes, Unai Gotxi Kastrexana, Alazne Lafragua Ureta, Zuriñe Frutos Gutiérrez-Barquín y Arkaitz San José Martínez.

Así mismo, designamos como persona que ejercerá de Portavoz de dicho Grupo: Arkaitz San José Martínez. Y como portavoz suplente: Zuriñe Frutos Gutiérrez- Barquín.

En Artziniega a 19 de junio de 2019.”

3.- “TALDE POPULARRA” UDAL TALDE POLITIKOA

2019ko ekainaren 21ean, 1876 sarrera-zenbakiarekin, idatzi hau aurkeztu zuten Erregistroan:

Artziniegako Udaleko Alkate/presidenteari:

“Joseba Elejalde Ribacoba jaunak, Artziniegako Udaleko zinegotziak, Toki Erakundeetako Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 24. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, bertaratu eta azaldu du:

Talde politiko modura eratzten dela, bere korporazioko jardunaren ondorioetarako. Talde politikoa Talde Popular izendatuko dela.

Taldeko bozeramaile modura Joseba Elejalde jauna izendatzen dela.

Artziniegan, 2019ko ekainaren 18an.” Sinatuta: Joseba Elejalde”.

Bertaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Joseba Mirena Vivanco Retes, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin, Unai Gotxi Kastrexana eta Arkaitz San Jose Martinez, EH Bildu taldekoak(4); Encina Castresana Astarloa, Jose Miguel Vadillo Ribacoba eta Miren Izaskun Perez Barragan EAJ-PNV (3) alderdikoak; eta Joseba Elejalde Ribacoba P.P. taldekoa (1)



2.- Alkate Jaunaren dedikazio eskusiboa.

Alkateak akordioaren proposamena irakurri du. Akordioan 52.224,90 euro adierazten du, baina Eudeletik 2019ko azken eguneraketa bidali digute, eta 2.000 biztanle baino gutxiago dituzten tokiko korporazioetarako, gehienezko soldata-muga 53.400 eurokoa da.

"AKORDIO-PROPOSAMENA

Alkate Jaunaren dedikazio eskusiboa

«Ikusirik Udal Gobernagarritasunerako eta Euskadiko Zinegotzi eta Alkateen karguei dagokien jokabide askeari buruzko Akordioa, Udal honek 2008ko martxoaren 28an egindako ezohiko saioan onartua.

Ikusirik otsailaren 11ko 4/2015 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko tokiko administrazioaren arrazionaltasun eta iraunkortasunerako neurriak aplikatzean foru berezitasunari buruzkoa.

KONTUAN IZANIK, aipatu Foru Arauko 4. artikuluan 2000 biztanletik beherako tokiko Korporazioetako kideen ordainsarien gehienezko muga 52.224,90 eurotan ezartzen dela, Eusko Jaurlaritzako Zuzendariaren soldataren % 75aren baliokide dena, zerbitzu berezi egoeran dauden karrerako funtzionarioek, hala badagokio, duten hirurtekoetarako eskubidea baztertuta.

KONTUAN IZANIK dedikazio eskusiboko erregimenean beren kargua izan dezaketen korporatiboko kideen kopurua Tokiko Araubidearen Oinarriak Arazten dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeko 74. artikuluko mugen baita dagoela, zeinaren arabera:

b) 1.001 eta 2.000 biztanle bitartean dituzten Udalerrietako Udaletan soilik kide batek eman ditzake bere zerbitzuak dedikazio eskusiboko erregimenean.

KONTUAN IZANIK Artziniegako udalerriak gaur egun 1.823 biztanle dituela.

Azalpen honetan oinarrituta, Udaltzari proposatzen zaio har dezala hurrengo,

AKORDIOA:

Bakarra.- Alkatezaren dedikazio eskusiboa onartzea urtean 29.000,00 € euroko ordainsari gordin batekin, hamalau pagatan jasoko dena, hamabi urteko hilabete bakoitzeko eta gainerako biak ekaineko eta abenduko hileetan, eta Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean alta ematea, Korporazio honek hartu beharko duen beregain dagozkion enpresa-kuoten ordainketa. Dedikazio eskusibo horrek 2019ko uztailaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Horrela proposatzen du Alkate Presidente jaunak, Artziniegan, 2019ko ekainaren 20an”.

Miren Izaskun Perez Barragan: EAJ udal taldetik beti pentsatu izan dugu Artziniegako Alkatearen karguak kargu horrek suposatzen duen erantzukizunarekin bat datorren ordainsaria izan behar duela. Haatik, EH Bildu alderditik ez da irizpide hori defendatu, aitzitik, Joseba Vivancok, oposizioan egon den urteetan, Alkateak bere aurreko lanean kobratzen zuen kopuru bera kobratu behar zuela defenditu izan du. Horixe da Bilduk eskatzen zuena, eta kasu honetan Joseba Vivancok. Bada, hau da gure EAJ taldeak Bildurik eskatzen diona. Esaten aritu dena bete dezala, Alkateak bere aurreko lanean kobratzen zuen kopuru bera kobra dezala. Izan ere, premisa hori EAJ taldea betetzen aritu da. Urrunegi joan gabe, aurreko Alkateak, Iñigok, bere aurreko lanean kobratzen zuen kopuru bera kobratzen zuen, eta horren froga modura bere nomina helarazi zien talde politiko guztiei, horren froga utziz, are legez zegokion antzintasuna kobratzeari muzin egin zion. Hori da orain egungo Alkateari eskatzen diogu, Joseba Vivancori, gainerakoentzat eskatutakoa bete dezala, eta bere azken nomina helarazi eta bere azken lanean kobratzen zuena kobra dezala Alkate modura.

Alkatea: kobratzen dudana, edo nire nomina, ekainaren 30era arte egongo naizen enpresan, zeinak niri ordaintzen jarraitzen duen, gai pertsonala da, pribatua, eta ez dut zertan azalpenik eman. Ez naiz sartuko aurreko Alkateak egin zuenaz edo egin ez zuenaz hitz egitera, nik kontzientzia lasai dudala baino ez dut esango, eta badakit adierazi dudanarekin koherentea izan naizela, eta duela lau urte adierazi nuenarekin ere bai, gainera ez da zehazki zuk esan zenuena, akta berriro irakurtzea gomendatuko nizuke. Koherentea naiz hartu dudana erabakiarekin. Nire



talde politikoak abalatu eta onartu duen erabaki bat da, nire alderdi politikoak ere abalatu du, 29.000 euro jasoko ditut hemen, gehienezko zenbateko muga 53.000 eurokoa denean. EAJ taldeak uste badu gutxiago izan behar dela, edo gehiago izan behar dela, edo dena delakoa, bada tira, pentsatzen dut irizpide politiko kontua izango dela. Nik, edozein kasutan, errepikatzen dudak bakarra da duela lau urte egindakoarekin modu koherentean jokatu dudala, duela lau urte irizten nuenarekin, eta horregatik nago lasai.

Miren Izaskun Perez Barragan: zuk esaten zenuena zen Alkateak bere aurreko lanean kobratzen zuena kobratu behar zukeela. Eta urreko Alkateak bere nomina aurkeztu zuen, eta eskatzen dugun bakarra da esan zenuenarekin koherentea izan zaitezela. Hori baino ez dizut eskatzen. Hau da, koherentzia zera da, zuk duela lau urte eskatzen bazenuen Alkateak bere lanpostuan kobratzen zuena kobra zezala, koherentzia eta gardentasun ariketa bat egin eta nomina aurkez dezazula, Iñigok aurkeztu zuen bezala. Ezin dizut beste ezer eskatzen. Ulertzen dugu alde bakarreko erabakiz 29.000 euroko soldata bat izatea, baina eskatzen duzuna egitea eskatzen dizugu.

Alkatea: berriro diot, duela lau urteko akta erreparasatzeko gonbitea luzatuko nizueke, izan ere, ez da zehazki hemen esaten ari zarena.

Miren Izaskun Perez Barragan: Zer dio?

Alkatea: erreparasatzera gonbidatzen zaitut,....

Miren Izaskun Perez Barragan: ez, ez, esan iezaguzu. Guk badugu akta.

Alkatea: nik akta ez dut, zertarako ekarri. Nik berrikustera gonbidatzen zaitut.

Miren Izaskun Perez Barragan: Ez duzu nomina aurkeztuko? Ez duzu, Iñigok egin zuen bezala, nomina aurkeztuko?

Alkatea: Iñigok egin zuen gauza bera egin behar al dut nik?

Miren Izaskun Perez Barragan: galdera da, ez betebeharra. Galdetzen ari nintzaizun.

Alkatea: bada horixe, zerorrek esan duzu, derrigorrezkoa al da? Aurreko Alkateak egin zuen gauza bera egin behar al da?

Miren Izaskun Perez Barragan: kito, ez duzu egingo.

Alkatea: esaten ari natzaizu...

Miren Izaskun Perez Barragan: ez, ez, kito, ez duzu egingo.

Alkatea: ni zuri galdetzen ari natzaizu.

Miren Izaskun Perez Barragan: nik galdegiten dizut, aurkeztuko al duzu?

Alkatea: eta nik zuri galdegiten dizut, derrigorrezkoa al da aurreko Alkateak egin zuena egitea?

Miren Izaskun Perez Barragan: ez da derrigorrezkoa, baina, duela lau urte esan zenuenarekin koherentea izango al zara?

Alkatea: horixe naizela koherentea, oraintxe esan dizut eta.

Miren Izaskun Perez Barragan: hori zure iritzia da. Duela lau urte esan zenuena aintzat hartuz, ez zara.

Joseba Elejalde Ribacoba: kasu honetan koherentea dena da, eta sartu egingo naiz orain, uste dut gauzak bere lekuan jarri behar direla, ea Artziniegako Udal batean egiaz dedikazio eskusiboa, kostu gordinez hitz egiten ari gara, kasu honetan EH Bilduk 29.000 euro proposatzen ditu, bere garaian EAJ taldeak 45.000 euro kobratzen zituen, soldata kostua zena ia 60.000 eurora iristen zen, eta orain 38.000, 39.000 euro inguruz ari gara hitz egiten. Horretaz hitz egiten aritu beharko ginatke, Artziniegako udalerrian, 39.000 euro horiek edo 45.000 euro horiek gehi Gizarte Segurantzari dagokion soldata-kostua, guztira 60.000 euro izanik, kobratu behar ote den ala ez. Gainerakoa, nomina bat ekartzea edo nomina ez ekartzea... Eta bestela, talde bakoitzak esan beharko zukeen, hauteskunderen aurretik, zer kobratu behar duen, izan ere, horrela, bozkatzen gaituzten jaun-andreek, argi izango lukete lehen unetik, eta hemen eztabaidatzen ari garena ez litzateke zertan eztabaidatu, izan ere, Joseba Vivancok une hartan, duela bi hilabete, bere programan adierazi izan balu, EAJ taldeak bezalaxe, edo nire kasuan, Alderdi Popularraren moduan, bada, gaur bozkatu gaituzten herritarrek alde aurretik jakingo lukete. Niri, aurkezten dena ez zait eskuak burura eramatekoa modukoa iruditzen, ez zait gehiegizko soldata iruditzen dedikazio eskusibo baterako, baina iruditzen zait hau berriro gerta ez dadin, egokiena dela talde bakoitza, hauteskundeak egin aurretik, horren inguruan argi azaltzea. Izan ere, EAJ taldeak orain



dio duela lau urte lehengo Alkateak bere nominaren arabera kobratzen zuela, eta hemen kobratzen hasi zenean, lehendabiziko Alkateak ez zuen bere nominaren arabera kobratzen, bere nomina halako hiru kobratzen zuen. Orduan azkenean, atzeraino joango gara eta hasiko gara... ala ez. Nire ustez, azken batean, garrantzitsuena zera da, EH-Bildu taldeak proposatzen dituen 29.000 euro horiek koherenteak al dira 1823 biztanle dituen udalerrri baterako, ala ez? Hori da eztabaidatu beharko genukeena, baldin eta kasu honetan zerbait eztabaidatu behar badugu, izan ere, gehiengo osoa EH-Bildu alderdiak du, eta noski, horren arabera egin eta desegiteko aukera dute.

Alkatea: gai ixtearren soilik, gauza bat argitu nahi dut, betebeharrez hitz egiten ari gara, eta are hauteskundeen aurretiko betebeharrez, baina inor ez dago derrigortuta hauteskundeen aurretik zenbat kobratuko duen esatera, uste dut ez dela inon aipatzen halakorik, ñabardura gisa, horrenbestez bakoitzak, alderdi bakoitzak edo hautagai bakoitzak nahieran jokatu du, eta era berean inon ez da aipatzen Alkate batek edo Zinegotzi batek, inork, nomina bat aurkezteko betebeharra duenik. Betebeharrik ez dagoen lekuan norberak bere ustez egin behar duena egingo du. Eta ni ez naiz aurreko Alkateez hitz egiten hasiko, ezta beste inori buruz ere. Ni naiz ni, nik erabaki koherente bat hartu dut, nire taldeak abalatuta, nire alderdiak bikain abalatuta, haiek ezagutzen dute eta badakite, eta ez dago inolako arazorik.

Miren Izaskun Perez Barragan: gertatzen dena da 2015eko aktara jotze dugula, non Alkatearen ordainsariari buruzko zenbait ideia azaltzen dituzun.

Alkatea: esan nuenarekin koherentea naiz, eta nire kontzientzia oso lasai eta bare dago. Are gehiago, egunotan kalean askotan jaso ditut zorionak kobratuko dudana soldatagatik. Esaten dudana da, esan nezakeen apur bat gehiago kobratzeko, ezta? bada ez.

Miren Izaskun Perez Barragan: kontua ez da 5 edo 10 kobratzen duzun. Kontua da koherentea izan behar zarela esaten duzunarekin eta orain egiten duzunarekin. Eta irakurtzen dugu, eta ez dugu koherente ikusten.

Alkatea: erabat koherentea.

Bozkatu egin da:

Aldeko botoak:

Joseba Mirena Vivanco Retes, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin, Unai Gotxi Kastrexana eta Arkaitz San Jose Martinez EHBildu taldekoak (4);

Kontran:

Encina Castresana Astarloa, Jose Miguel Vadillo Ribacoba eta Miren Izaskun Perez Barragan EAJ alderdikoak (3);

Abstentzia:

Joseba Elejalde Ribacoba Alderdi Popularrekoa (1);

Onartuta geratu da.

3.- Osoko Bilkuren aldizkakotasuna

Alkateak akordioaren proposamena irakurri du.

"AKORDIO-PROPOSAMENA

Osoko Bilkuren aldizkakotasuna

Akordio-proposamen hau irakurri da:

"Toki Erakundeetako Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 28. eta 78. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorri, Alkatetza honek Udalbatzari hurrengo osoko bilkuren erregimena onartzeko proposatzen dio:



- *Ohiko Osoko bilkurak hil hauetan egingo dira: urtarrila, otsaila, martxoa, apirila, maiatza, ekaina, uztaila, urria eta azaroa.*
- *Adierazitako eguna hil bakoitzeko lehen osteguna da.*
- *Saioen eguna goizez eta arratsaldez izango da txandaka, nahiz eta arratsaldeko ordutegia aldatu egingo den hilearen arabera, udazken-negua edo udaberri-uda izatearen arabera: (10:00ak) azaroa (18:00ak), urtarrila (10:00ak), otsaila (18:00ak), martxoa (10:00ak), apirila (19:00ak), maiatza (10:00ak), ekaina (19:00ak), uztaila (10:00ak).*
- *Ezohiko Osoko Bilkurak goizez izango dira beti.*

Horrela proposatzen du Alkate Presidente jaunak, Artziniegan, 2019ko ekainaren 20an”.

Arkaitz San Jose Martinez: orain arteko osoko bilkura kopuru bera mantentzen da. Irailekoa aldatzen da, azkenean udaletxean osoko bilkurak asteko lehen astean egiten ditugunez, azkenean irailean beti jaiekin batera ematen da eta normalean ez dira dagokion egunean egiten, azkenik ezohiko bilkura bat izatera pasatzen da, beraz, osoko bilkura uztailean aldatzen da, orain arte orduan ez zegoen arren. Horrek ez du eragozten irailean edo abuztuan dagozkion ezohiko bilkurak egitea, baina ohikoa irailetik uztailean aldatzen da. Eta ondoren goizeko eta arratsaldeko osoko bilkuren kontua dago. Egia da gure taldetik duela lau urte guztiak arratsaldez egitearen alde egin genuela, baina egia da ikusi dugula arratsaldez egindako bilkuretara ez dela jende gehiago etortzen, beraz momentuz, eta jende gehiago etortzen dela ez badugu ikusten, eskaera bat dagoela edo jendeak eskatu egiten digula, goizeko eta arratsaldeko osoko bilkurak mantenduko ditugu, aldaketa batekin, hots goizeko 09:00etan izan beharrean, goizeko 10:00etan izango dira, izan ere, goizeko ordutegia agian eragozpena izan zitekeela ikusten genuen, eta proba dezagun. Eta, era berean, uda partean diren osoko bilkurak ordubetez atzeratuko ditugu, gure proposamenean bederen, jendea etor dadin era berean, ea zein emaitza duen.

Joseba Elejalde Ribacoba: beti esan izan dudana moduan, aldaketa honi dagokionez, 12 urte daramatzagu txandaka hileak aldatuz, arratsaldez eta goizez. Orain orduak ere aldatu egingo ditugu... Nire ustez, 20 urtetan ez dut ikusi gaur egon daitekeena baino jende gehiago, izan goizez edo izan arratsaldez, azken batean ez dut ikusten.... Nire ustez, pertsonalki, goizean lehen orduan egitea lehenetsiko nuke, eta lehenbailehen hobe gainetik kentzeko, ni autonomoa naiz, eta nire lanari ekin ahal izateko, izan ere, noski, goizeko 10:00etan ipintzen badidazu, ez nago ez kontu batean ez bestean. Ezin diot nire lanaldiari ekin, goizeko 09:30etan hemen egon behar naiz eta, edo 09:45etan eta 12:00etan amaitzen baldin badut, nire lanaldia ere ezingo dut hasi, izan ere, ia bazkaltzeko ordua da, beraz niretzat, eragozpena da. Ez da lehen aldia esaten dudana ez nagoela ados aldaketa horiekin, ez ordutegiari dagokionez, ez txandaka goizez eta arratsaldez izateari dagokionez, 20 urtetan azken batean ikusten aritu naiz, Udalak egiten duen proposamenak ez du eraginik gizaratean, eta ez dago osoko bilkurara etortzeko interesa agertzen duen herritar kopuru handi bat, osoko bilkura hauetan jorratzen diren gaiak direla medio.

Jose Miguel Vadillo Ribacoba: bada, nire ustez, hobe litzateke beti ordu jakin batean izatea, ez hil batzuetan 6etan eta beste batzuetan 7etan.

Arkaitz San Jose Martinez: hori ere eztabaidatu izan dugu, baina era berean pentsatzen genuen arratsaldeko zazpietan abenduan, urtarrilean, iruditzen zitzaigun...

Alkatea: batez ere ordutegiak erabakitzen saiatu gara, batez ere jendeari begira, ez mahaian gaudenengan pentsatuz. Egia da Josebak esan zidala “10etan gehiegi iruditzen zait”. Bi hiletik behin egun bat da, tira... Orduan goizez eta arratsaldez mantentzeari dagokionez, Josebak esaten zuen moduan, azken batean legegaldi bakoitzean aldatzen ari gara, orduan esan dugu “manten dezagun”, horrela funtzionatzen aritu gara, eta aldatu eta guztia arratsaldez uztea ere ez da kontua, eta ordutegien kontua, Arkaitzek esaten zuen moduan, ez da gauza bera arratsaldeko zazpietan ekainean edo urtarrilean. Badakigu zer den, orduan beti errazte aldera. Horrek ez du esan nahi, Arkaitzek hasieran esan duen moduan, aurrerago ikusten baldin bada



aparteko garrantzirik ere ez duela, edo aldaketa ez bada nabaritzen, orduak doitzea erabaki daiteke. Baina, hasiera batean, proposamena jendea erakartzeko asmoz dago egina, eta etorri ahal izatea goizeko 10etan, ziurrenera errazagoa baita goizeko 9etan baino, etor dadila udaletxera, are baita haurrak ikastetxean utzi ahal izan dituen hori ere.

Bozkatu egin da:

Aldeko botoak:

Joseba Mirena Vivanco Retes, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin, Unai Gotxi Kastrexana eta Arkaitz San Jose Martinez EHBildu taldekoak (4);

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Encina Castresana Astarloa, Jose Miguel Vadillo Ribacoba eta Miren Izaskun Perez Barragan EAJ alderdikoak (3); Joseba Elejalde Ribacoba P.P. alderdikoa (1);

Onartuta geratu da.

4.- Informazio Batzordeen eraketa eta osaera.

Alkateak akordioaren proposamena irakurri du:

"AKORDIO-PROPOSAMENA

Informazio Batzordeen eraketa eta osaera

Korporazio berria osatuta, 2019ko ekainaren 15ean egindako ezohiko saioan, 2019ko maiatzaren 26an egindako tokiko hauteskunderen ondorioz, Toki Erakundeetako Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen dun azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuko 38. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, udaletxe honetan izaera iraunkorreko Informazio Batzordeen eraketa, osaeraren zehaztapena eta funtzionamendurako erregimena onetsi egiten da, Tokiko Araubidearen Oinarriak Arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 20.1 c) artikuluan xedatutakoari jarraiki.

Haren funtzioa Osoko Bilkuran erabakitzera eraman diren gaiak aztertu, txostenak egin edo kontsultatzea da, berehalakotzat jotako erabakiak hartu behar direnean salbuetsita.

Halaber, Alkateak berariaz hala eskatuta haiek jakitekoak diren Alkatearen eskumeneko gaiei buruz irizpena emango dute.

124.2. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, 125. artikulurekin lotuta, biak Toki Erakundeetako Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendukoak, Udalbatzari dagokio, hartako kopurua eta hasierako izendapenak egitea, Korporazioan ordezkatura dauden talde politiko ezberdinen arteko proportzionaltasuna mantentzen saiatuz.

Horregatik guztiagatik, 38. artikuluan, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Toki Erakundeetako Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduko 123-127 eta 134-138 bitarteko artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, Alkatetza honek proposatzen dio Udalbatzari har dezala hurrengo

AKORDIOA

LEHENA Zerrendatzen diren izaera iraunkorreko informazio batzordeak eratzea, izendapen honekin:

- 1. Kontu, langile eta herrietako Informazio Batzorde berezia.*
- 2. Natura eta hiri inguruneke Informazio Batzordea: energia, urak, mendiak, ingurumena, obrak eta hondakinen kudeaketa.*



3. Auzokidetasun eta herritarren eskubideen Informazio Batzordea: gizarte gaiak, feminismoa, herritartasuna, gazteak eta adineko pertsonak.
4. Agenda, jarduera, hezkuntza, euskara eta kirol arloko Informazio Batzordea.
5. Garapen ekonomiko eta kultural iraunkorrerako Informazio Batzordea: merkataritza, turismoa, ekonomia eta kultura.

BIGARRENA: Informazio batzordeek osoko bilkuran erabakitzeoak diren gai guztiak alde zuzenetik ikertu eta irizpena emateko funtzioak hartuko dituzte beregain, premiazkoztat jotako akordioak hartu behar direnean izan ezik, ezta Alkateak berariaz adierazi duen Udalbatzaren eskumenekoak ez diren gaiak jorratzen direnean ere.

Halaber, Alkatearen kudeaketaren jarraipena egitea dagokio, eta baita delegazioak dituzten zinegotziena ere, Udalbatzari dagokion kontrolerako eskumenaren kalterik gabe.

HIRUGARRENA: Informazio Batzordeak kide hauekin eratuta geratuko dira:

KONTU, LANGILE ETA HERRIETAKO INFORMAZIO BATZORDE BEREZIA

Presidentea: Joseba Vivanco Retes

EH BILDU Titularra: Arkaitz San Jose Martinez.

Ordezkoa: Unai Gotxi Kastrexana.

EAJ Titularra: Miren Izaskun Perez Barragan

Ordezkoak: Encina Castresana Astarloa

Jose Miguel Vadillo Ribacoba

PP Titularra: Joseba Elejalde Ribacoba.

NATURA ETA HIRI INGURUNEN INFORMAZIO BATZORDEA: ENERGIA, URA, MENDIAK, INGURUMENA, OBRAK ETA HONDAKINEN KUDEAKETA.

Presidentea: Joseba Vivanco Retes

EH BILDU Titularra: Arkaitz San Jose Martinez.

Ordezkoa: Unai Gotxi Kastrexana.

EAJ Titularra: Jose Miguel Vadillo Ribacoba

Ordezkoak: Encina Castresana Astarloa

Miren Izaskun Perez Barragan

PP Titularra: Joseba Elejalde Ribacoba.

AUZOKIDETASUN ETA GIZA ESKUBIDEEN INFORMAZIO BATZORDEA: GIZARTE GAIK, FEMINISMOA, HERRITARTASUNA, GAZTEAK ETA ADINEKO PERTSONAK.

Presidentea: Joseba Vivanco Retes

EH BILDU Titularra: Alazne Lafragua Ureta.

Ordezkoa: Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin.

EAJ Titularra: Encina Castresana Astarloa

Ordezkoak: Jose Miguel Vadillo Ribacoba

Miren Izaskun Perez Barragan

PP Titularra: Joseba Elejalde Ribacoba.

AGENDA, JARDUERA, HEZKUNTZA, EUSKARA ETA KIROL ARLOKO INFORMAZIO BATZORDEA.

Presidentea: Joseba Vivanco Retes

EH BILDU Titularra: Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin.

Ordezkoa: Alazne Lafragua Ureta.

EAJ Titularra: Encina Castresana Astarloa

Ordezkoak: Miren Izaskun Perez Barragan



PP Jose Miguel Vadillo Ribacoba
Titularra: Joseba Elejalde Ribacoba.

**GARAPEN EKONOMIKO ETA KULTURAL IRAUNKORRERAKO INFORMAZIO
BATZORDEA: MERKATARITZA, TURISMOA, EKONOMIA ETA KULTURA.**

Presidentea: Joseba Vivanco Retes

EH BILDU Titularra: Unai Gotxi Kastrexana.
Ordezkoa: Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin.

EAJ Titularra: Miren Izaskun Perez Barragan
Ordezkoak: Encina Castresana Astarloa

Jose Miguel Vadillo Ribacoba
PP Titularra: Joseba Elejalde Ribacoba.

LAUGARRENA: Alkatea izango da informazio batzorde guztietako presidente lanak egingo dituena. Alkatera ez balego, EH Bildu taldeak batzorde bakoitzean izendatzen duen titularra izango da batzordeko presidente lanak egingo dituena, eta haren ordezko modura izendatua titular izatera pasako da.

BOSGARRENA: Informazio Batzorde iraunkorren funtzionamendua Toki Erakundeetako Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduko 123-126 eta 134-138 bitarteko artikuluetan xedatutakoaren arabera izango da, eta Osoko Bilkuran jorratzekoak diren gaietan irizpena emateko adinako denboraz.

Horrela proposatzen du Alkate Presidente jaunak, Artziniegan, 2019ko ekainaren 20an”.

Arkaitz San Jose Martinez: beno, testuinguruan ipintze aldera, azken batean, duela lau urte aurreko legealdiko batzordeak eratu ziren, eta gure ustez izenak ematea garrantzitsua zela adierazi genuen, izan ere, izenek edukiak adierazten zituzten, eta ez zitzaigun gustatzen, operatiboa izan bazitekeen ere, batzordeak lurralde, herritar eta antolaketa izenez laburbiltzerik. Alderdi zehatzak aipatzeke uzten zirela, eta ildo horretatik zera egin dugu, izenetan jorratuko diren gaiak barneratu. Uste dugu ikusgaitasun handiagoa ematen diela horrela eta gai guztien inguruan arduratuta egoteko erantzukizunean ipintzen gaitu. Gaiak eta horiekiko antzekotasunen prozedura aintzatetsiz, bost batzorde banatu ditugu. Osaerari dagokionez egia da oposizioko taldeekin eztabaidan aritu ginela osaera egokienaren inguruan, egia da hasiera batean zera proposatzen genuela, jakina batzordeak ez dira erabakiak hartzeko lekua, baizik eta txostenak taxutzeko dira, horrela udalbatza orientatzeko gai horietan eman beharreko bozketaren inguruan, baina uste genuen, udalbatzaren osaera dela eta, batzordeak ere osaera horren isla izan behar zirela apur bat. Beraz, gure lehendabiziko proposamena batzordeak 5 pertsonekin mantentzea zen, orain arte bezala, baina horietan gehiengoa izanik. Ondoren pentsatu genuen, eta ekarpenak ikusita, agian arinagoa izango zatekeela, eta agian Udalbatza hobeto ordezkatuko litzatekeela, murriztea pertsona batera eta EH-Bilduko bi esku-hartzaile, PP alderdiko bat eta EAJ alderdiko bat, hori da aurkeztu genuen proposamena. Izan ere, Udalbatzarekiko leialena agian izango zatekeen EH-Bilduko 3, EAJko 2 eta PPko 1, baina 9 pertsonako Udalbatza batean 6 pertsonako batzordeak eratzea iruditzen zitzaigun, oso operatiboa ez izateaz gain, bertaratzeko eta abar dietan gastu gehiago izatea.

Joseba Elejalde Ribacoba: informazio batzorde ezberdinei dagokienez, eskerrak eman behar dizkizut mendiak barneratzeagatik, bere garaian kanpoan baitzegoen. Esan nitzun moduan, mendiena kanpoan egon behar zukeen batzorde bat zela uste nuen Artziniegako Udalean duen garrantziagatik, Udal honi ematen dizkion baliabideengatik, eta nik galdera bat daukat, Mendiatarako zinegotzi bat esleitzea aurreikusten ote den, izan ere, azken zortzi urteetan doi-doi igaro gara arlo horretan, ez da halakorik egon, EAJ alderdiaren azken urteetan zehar, eta nik uste



dut garrantzitsua dela Mendietako zinegotziaren irudi hori berriro izatea, basozainarekin harremanetan egongo den pertsona bat, abeltzainekin harremanetan dena, mendian egiten ari diren inbertsio guztiekin harreman zuzenean, kasu askotan, Ascenek ez dezan joan beharrik izan hitzartzen ziren inbertsioak egin diren ala ez diren egin ikustera. Gainera, nire ustez, garrantzitsua da, izan ere, zinegotziaren irudia herritarrarengandik oso hurbilekoa da, normalean mundu guztia ezagutzen dute, eta mendiari, ingurumenari edota urari dagokienez dauden arazo guztiak modu zuzen eta azkarrean helarazi ahal dizkizu. Horregatik, nik, Alderdi Popularretik, Bilduri adierazten diot aintzatetsi dadila mendietako zinegotziaren irudia, berehala irudi hori izan dezagun. Eta ondoren, amaitzeko, Arkaitzek esan duenari buruz, azken 8 urteotan Gobernu Batzordea egin izan da, talde guztiak gaude ordezkaturata, irtenbide eta ikuspegi ezberdinak ematen ditugu eta, beno, nik ere bere garaian adierazi nizun nire ustez hori ona zela, ekarpenak egiten zirela, praktikoa zela, nahiz eta ulertzen nuen, Arkaitzek ongi azaldu duen moduan, funtzionamendua. Nik diot azken 8 urtetan Gobernu Batzordeak oso ongi funtzionatu duela, eta talde guztiak ekarpenak eta ikuspegi ezberdinak eman ditugu Gobernu Batzorde horretan azaltzen zenaren inguruan. Beraz, nik diot, beste behin, Gobernu Batzorde horiek egiten jarraitu behar dela.

Encina Castresana Astarloa: Informazio batzordeen eraketa eta osaerari dagokionez, EAJ udal taldeak bere harridura agertu du EH Bildu alderditik tokiko gobernu batzordea baztertu egiten delako, inolako salbuespenik gabe talde politiko guztien partaidetza izan duen partaidetza eta erabakiak hartzeko udal organo bat, zortzi urte zeramatzana martxan. PP alderdiko zinegotziak ere aurpegiratu dizue gobernu batzordea "pikutara" bidali izana. Argi dago ez duzuela nahi oposizioko zinegotziek parte hartzea eta informazioa izatea.

Eta ez hori bakarrik, baizik eta Informazio Batzordeen eraketa eta osaerari dagokionez Toki Erakundeetako Funtzionamenduaren Erregelamenduko 125. artikuluan proportzionaltasuna aplikatu behar dela ezartzen da. Hau da, Batzorde bakoitza bakoitzak dituen zinegotzietako proportzionala izan behar dela. Hau da, udalbatzako osaerarekiko ahalik eta proportzionalena izan behar dela: 5 Bildu, 3 EAJ eta 1 PP.

Bada, Joseba Vivanco alkateak batzordeen osaerari buruzko proposamen bat bidali zigan joan den ekainaren 17an, horrela banatuta: 3 Bildu, 1 EAJ eta 1 PP. Non dago hor ordezkagarritasuna? Bilduk 3 ordezkari ipintzen dizkio bere buruari 5 zinegotzirekin eta EA alderdiari ordezkari 1 ipintzen dio 3 zinegotzirekin. Bide batez, Alderdi Popularrak duen kopuru bera, zinegotzi 1 duenean. Non dago legez bete behar den proportzionaltasuna? Osaera horrekiko gure desadostasuna erakutsi genuen eta hala jakinarazi genion Alkateari. Har ez zigan erantzunik eman udaletxera gai hori kontsultatzerara joan ginen arte. Orduan hau izan zen ordezkartzaren proposamena: 2 Bildu, 1 EAJ eta 1 PP. Ez dela proportzionala pentsatzen jarraitzen dugu, izan ere, Bilduk EAJ alderdiak dituen ordezkarien bikoitza ematen dizkio bere buruari. Horregatik, txosten juridiko bat eskatekotan gaude.

Alkatea: Josebari erantzunez, mendietako zinegotziaren gaiari helduz, arrazoi duzu. Gure asmoa, aurretik dugun lan izugarriaren barnean, mendien gaiari lehen aldiz ziurrenik urte askoan seriooki heltzea da, horretan saiatuko gara, seriooki heltzen, gai horretan ardura hartzen, izan ere, mendiak duela urte askotik hona Artziniegako pagano nagusiak izan dira, eta esan behar dut nik 8 urte daramatzadala hemen, eta niri dagokidan erruaren zatia niregain hartzen dut. Izan ere, nik hemen daramatzadan 8 urtetan bederen, mendiak izan dira pagano nagusiak, eta ia inor ez da Udal honetan, korporazio honetan, Artziniegako mendien egoeraz kezkatu, etab... Horretan arrazoiak ematen dizut, mendien gaiari dagokionez guztiok ardura hartu beharrean gaudela. Gobernu Batzordearen gaiari dagokionez, zuk esan duzu, EAJ taldeak ere bai, egia esan Gobernu Batzorderik ez izatearen ideia, gure ustez azken 8 urteotan..., argi izan behar den lehendabiziko gauza da Artziniegako Udala bezalako Udal batean ez dela derrigorrezkoa Gobernu Batzorde bat izatea. Ez da derrigorrezkoa Tokiko Udal Gobernua izatea. Hortik hasita. Azken 8 urteetan aurreko Alkateek Tokiko Udal Gobernua eratu izana erabakitzeak, ziurrenik izango zituzten beren arrazoiak, horietako bat izan zitekeen gehiengo osoa ez izatea, eta baziren Gobernu Batzorde batean hartu beharrekoak ziren zenbait erabaki, erlatibo hori ere bazuten... non erabakiak hartzen ziren eta ordezkartzita bat zegoen. Ulertzen dugu, ulertu egin dugu eta baloratu egin dugu, gehiengo oso bat egonik era berean, Gobernu Batzordera eramatea zenbait



gauza delegatzea erabakitzeko, Gobernu Batzordean delegatuz, Udalbatzari edo Alkatetzari dagozkion eskumenetan, hots, Gobernu Batzordeari delegatzen zaizkio Alkatetzaren edo Udalbatzaren eskumen direnak. Pentsatuz, edo kontuan izanik, une honetan Gobernu taldeak gehiengo osoa duela, agian egia da Josebak esaten zuena, eztabaida hutsagatik egon behar dela, baina uste dugu era berean hor egongo direla gainerako Batzordeak gai guztien inguruan eztabaidatzeko, gure asmoa baita informazioa modu arinean iristea bi udal taldeetara inolako arazorik gabe, informazio guztia dute eskuragarri eta, are, aldizka egiten goazen guztiaren berri ematen joango gara, orduan ez genuen beharrezkotzat jotzen organo hori egotea. Eta, era berean begiratu dugu, lehen osoko bilkuretako ordutegiak ezartzerakoan esaten nuen modu berean, eta abar, jendeari begira egon gara, sartu orduko argi izan genuen berez udal langileek baduten lan-kargan erreparatuko genuela, kasu honetan udaletxearen atetik barnera dauden langileengan. Lan-karga hori ahalik eta gehien arrazionalizatzen saiatzea eskatu dugu. Adibidez lehen aipatzen genuen batzordeen kontua, nahitaez ez dira batzordeak deituko bai ala bai. Hau da, gaiak daudenean deituko dira, eztabaidatzeko gaiak dauzkagunean, eztabaidatzeko gaiak ekartzen direnean, ez da betebeharra izango, eta orduan udal langileek berez baduten lan-karga hori arrazionalizatzen saiatu gara, eta hori garrantzitsua baita. Hortik aurrera, hori da hartu dugun erabakia. Gaiak batzordeetan eztabaidatuko dira, ez da inolako arazorik izango, Alkatetzak bere eskumenak izango ditu, Udalbatzak bere eskumenak izango ditu. Era berean, horrela gauzak arintzea espero dugu. Azken legegaldian ere Alkateak zenbait eskumen zenbait delegatu zituen, uste dut ez nabilela oker, azken garaian baten bat berreskuratu zuen gauza batzuei arintasuna emateko azken batean hileroko deitzen den Gobernu Batzordeak atzeratu egiten dituenak, bada beno, azken batean ikusi izan da zenbait gauzei arintasuna eman behar zitzaie, orduan tira, hori da gure planteamendua, eta Udalbatza honetara dakarguna, gaiak batzordeetan eztabaidatuko diren arren, badira batzorde zabalak non gai dezente jorra daitezkeen eta gaiak eztabaidatu daitezkeen, hala gobernu taldetik eramaten ditugunak, nola oposizioak batzordeetan joratzeko ekartzen dizkigunak, beraz eztabaidaren eta informazioaren gaian ez da inolako arazorik izango. Eta proportzionaltasunaren gaiarekin, egia da, batzordeetako proportzionaltasunaren kontua helarazi genizuen eta begiratu genuen, orain arte batzordeak Alkateak (EAJ), EAJ taldeko kide batek, EH-Bilduko bi kidek eta Alderdi Popularreko kide batek osatzen zuten, Udalbatzan ordezkariak lau, lau eta batekoa izanik. Ordezkaritza izatean, egia da era berean EAJ taldetik beren desadostasuna helarazi zitzaigula ordezkariak zela medio, Bilduko 3 zinegotzi, EAJ 1, eta PP alderdiko 1, 3 zinegotzi, Alkatea barne. Horrek ez zuela ordezkariatasuna betetzen esan zitzaigun hauteskundeetako botoen portzentajea aipatuz, oker zeuden ordea, hori ez zen horrela, batzordeetan proportzionaltasuna Udalbatzaren arabera banatzen da, ez hauteskundeetan eskuratutako botoen portzentajeari erreparatuz. Kontsultak egin genituen, Udalean kontsultatu genuen, gure kontsulta berezkoak egin genituen, gu eskatzen ari ginena osaera egiazkoa ote zen ikusi genuen, eta azalpena emango dut: Alderdi Popularrak zinegotzi bakarra du, baina batzorde horretan egon behar du bai ala bai ordezkari batekin, bai ala bai, zinegotzi bakarra izan arren, eta gainerakoek 8 izan dezakete, hark beti zinegotzi bat izan behar du. Batzordeko gainerako kide kopurua Udalbatzarekiko izango da proportzionala. Hots, EAJ eta Bildu taldeen artean banatuko genituzke. Orduan, gure ustez, guk ordezkariak handiago izatean, galdetu egin dugu, eta arrazoia ematen ziguten, eztabaidatu eta are, gure artean bozkatu egin genuen, esfortzu hori egin genuen eta erabaki genuen ez genuela batzorde horietan ikusizko gehiengo bat izango, baizik eta PP alderditik zinegotzi bat, EAJ alderditik 1, Bildutik 1 eta Alkatea presidente modura. Zer-nola izan behar zuen esaten ziguten pertsona guztiek esaten ziguten: "Bilduk bi zinegotzi eta presidentea, Alkatea, izan beharko lituzke ordea". Beno, azkenean ezetz erabaki dugu, ezetz, bat, bat, bat eta bat izango dugu, eta lau pertsona izango dira. Ez dut esango ezta EAJ taldearen aldeko emakida bat denik, ez baita horrela ere, baizik eta erabaki dugu... Asceni utziko diot hitz egiten, horretaz gehiago daki eta:

Ascension Hormazabal Meabe: Akordioaren proposamenaren arabera Batzordeetako osaerak ez du betetzen talde politikoek Udalbatzan duten ordezkariaren proportzionaltasuna.

Alkatea: ez, batzordea zortzi pertsonakoa izan daiteke. Baina, azkenean gertatzen da zortzi pertsona dieta kobratzen egotea elkartzen diren aldiro, orduan, ...



Ascension Hormazabal Meabe: Izango lirateke, PP taldeak bat, talde politiko guztiek izan behar baitute ordezkaritza, EAJ taldeak bat eta EH Bildu taldeak bi zinegotzi gehi Alkatea. Hori da osaera eta gehiengo osoa, Udalbatzako Saiotetan bezalaxe, EH Bildu taldeak izango luke.

Alkatea: are gehiago, Idazkaritzak ohartarazi egin digu horrela egin dugulako.

Arkaitz San Jose Martinez: nik soilik izan ere,... gero ikerketa juridiko honek esaten baldin badu ez dugula arrazoirik... nik 2/2016 legeko 29. artikulua irakurriko dut, Euskadiko tokiko erakundeen antolaketari buruzkoa, hau da edukia: Udalbatzan ordezkaritza duten talde politiko guztiek, berariaz ukatzen ez baldin badute, organo osagarrietan parte hartzeko eskubidea izango dute, horietako zinegotzien presentziarekin Udalbatzako proportzio berean. Udalaren osaera dela medio, proportzionaltasun hori lortzea ezinezkoa denean, postuak banatu egin ahalko dira gehiengoak Udalbatzakoak dauden gehiengoak izateko moduan, edo organoak talde bakoitzeko kide kopuru berarekin osatzeko eta, erabakiak hartzeko, boto haztatuaren sistema aplikatuz". Hots, ulertzen genuena da batzordeetan irizpenak hartu behar badira, Udalbatzako gehiengoaren zentzu bera izatea. Izan ere, azken batean, txosten negatiboak ateratzeak Udalbatzako gaietara ondoren Udalbatzan onartu behar izateko ez zuen zentzun handirik eta, horregatik, Alkatearen kalitatezko botoa kontuan izanik, bi, bat eta bat ipini genuen. Egia da proportzionalagoa izango litzatekeela 3, 2 eta 1, baina horrekin batzordeak... Hori Bilboko Udalean 25, 6 duena ongi dago, baina gehiegi iruditzen zitzaigun.

Alkatea: ez, ez, 3, 1, 1 izango litzateke. Hori izango litzateke zuzena. Kasu honetan 2, 1, 1 izatea erabaki dugu, eta bide batez, Udalari dieta bat aurrezten diogu.

Encina Castresana, harritu egiten gaitu erabakitze organo bat desagerrarazi izana taldeek parte hartzekoa, ez gaude ados eta edozein kasutan Informazio Batzordeen osaerari buruzko txosten juridiko bat eskatuko dugu.

Izaskun Perez orduan Gobernu Batzordea desagerrarazi baina Batzorde kopurua areagotzen baldin baduzu, alde batetik kentzen duzu bestetik ipintzeko.

Alkatea. lau urte hauetan zehar Bildu taldeko zinegotziak dietak kobratzen aritu gara, lehen ez genituen kobratzen. Beraz, ikusten genuenez diru hori aurrekontuetan mantendu egiten zela, eta soberakoan amaitzen zuela, hau da, mantentzen jarraitzen genuela, kobratu egingo genituela erabaki genuen. EH-Bilduko Zinegotziek dietak kobratzen aritu gara batzordeetara bertaratzeagatik, nire kasuan, batzordeak, gobernu batzordeak, udalbatzak, Aiarako Kuadrillako gobernu batzordea, nire adiskideen eta Alazneren kasuan batzordeetara, eta dieten ondorioz jaso dugun diruarekin, bakoitzak nahi duen horretara bideratu du. GKE batera, elkarre batera, alderdi politikora, nahieran. Kasu honetan nik jarraibide bera aplikatuko dut, lau urte hauetan egin dudana baita, hau da, Aiarako Kuadrillara joan behar badut edo Urkideztara joan behar badut, dieta horiek ez ditut kobratuko inolaz ere, ez dakit Udalean geratu behar duen, ez dakit zer egingo dugu, baina inondik ere esaten dizudana da ez dudala kobratuko. Ez dakit norberak nahi duen lekura bideratzeko kobratuko ditugun, ez dakit zer, baina, are gehiago, begira, korporazioko azkeneko osoko bilkuretako batean proposatu ere egin genuen, edo kexu azaldu ginen, Urkideztan urtearen amaieran ez dakit zenbat diru xahutzen zelako Urkideztara joaten zen bakoitzari paketetxo bat ematen. Bizi garen garaian eta Urkideztan finantzatzeko Udaletatik elikatzen den organo horietako bat izanik, ez zitzaigun etikoa iruditzen bertaratzen ziren guztiei oparitxoak ematen egotea.

Encina Castresana: EAJ taldeak ere ez du inolako arazorik dietekin.

Alkatea: esan dizudana, dieten kontua hasiera batean ez da aldatuko, eta Gobernu Batzordearen kontuari dagokionez, azken batean ez da arazorik egongo gaiak eztabaidatzeko, batzordeetan gaien inguruan mintzatzeko. Bat kendu eta bestea batzen dugula? Tira, batzordeen gaiari dagokionez, ez dira derrigorrez deituko batzordeak egon daitezen, orain arte bezala, izan ere, hiru batzorde zeuden eta zenbait batzorde puntutxo batekin deitzen ziren, bada beno. Eta



kontuan izanik gure asmoa batzorde kopurua areagotzea ere bazela, gobernu batzordea desagerrarazten baldin badugu aipatu ditudan arrazoiengatik, ez du zentzurik.

Jose Miguel Vadillo Ribacoba, orduan Batzordeak deituko dira ala noizean behin deituko dira?

Alkatea: ez, ez, ez dut esan noizean behin. Esan dut gairik baldin badago egongo direla. Litekeena da beti bost batzordeak deitzea, hilero. Edo litekeena da lau deitzea, edo hiru, hau da, gaien arabera ere izango da hori. Ez dugu adineko pertsonen batzordea deituko... eta ez dago zer eztabaidatu eta hor eseriko gara sarritan egiten dugun moduan, eta aingeruen sexuari buruz hitz egin. Zera nahi dugu, batzordeetara baldin bagoaz, batzordeetara joango gara eta jorratzen diren gaiak eztabaidatuko ditugu, batez ere denborak eta egin behar dugun dedikazioa arrazionalizatze aldera.

Alkatea: Guztian parte har dezazuen saiatuko gara. Informazioa hor izango duzue, helarazi egingo dizuegu eta, hasiera batean, batzordeetan, planteatzen dituzuen gaiak ere eztabaidatu egingo dira. Egingo dugun obrari buruz eztabaidatu behar badugu, ziurrenik batzordera eramango da eta batzordean jorratuko dugu. Ondoren Udalbatzaren eskumena izango da, Alkatetzaren eskumena izango da. Diru-laguntzen kontua Alkatetzaren eskumena izango da, baina batzordeetan eztabaidatuko dugu egiaz diru-laguntzen ordenantza ongi egina dagoen, egokitu egin behar ote den, aldatu egin behar ote den, lehenago atera behar ote den... Eztabaida horiek izango ditugu. Beste kontu bat da Gobernu batzordera eramatea kultura teknikariaren txostena onartzera non esaten den "baremazioaren puntuazioaren arabera X arte dagokio horri". Kasu horretan Alkatetza izango da erabakiko duena, baina eztabaida horiek, funtzionatzen ote duen, ongi egiten ote diren, edo hobetu egin ote daitezkeen, batzordean izango ditugu, izan ere, halako arazoak urtero gai bakoitzarekin aurkitzen zara. Ez dugu Sojogutin sekulako obra onartuko hirigintzako batzordean eztabaidatu gabe... "aizu, hau eskatu behar da... Zer iruditzen zaizue?... diru-laguntza hauek..." hori egongo da. Nik uste dut honetan lanean aritu garenak, ildo horretatik ez da arazorik egongo. Eta ikusten baldin baduzue informazioa edo eztabaida murriztu egiten dela, hor zaudete guri esateko.

Joseba Elejalde Ribacoba: **Nik lehen esan dut nire agerraldian Alderdi Popularrarentzat azken urteotan garrantzitsua izan dela Gobernu Batzordean parte hartzea. Uste dut oso garrantzitsua dela, uste dut Udal honentzat oso positiboa dela, eta azken urteak dira horren lekuko, eta bozka ematea baino ez zait geratzen.**

Bozkatu egin da:

Aldeko botoak:

Joseba Mirena Vivanco Retes, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin, Unai Gotxi Kastrexana eta Arkaitz San Jose Martinez EHBildu taldekoak (4);

Kontran:

Encina Castresana Astarloa, Jose Miguel Vadillo Ribacoba eta Miren Izaskun Perez Barragan EAJ alderdikoak (3); Joseba Elejalde Ribacoba P.P. alderdikoak (1);

Abstentzioa:

Batere ez.

Onartuta geratzen da, Alkatearen kalitateko botoarekin.

5.- Organo kolegiatuetan izango diren korporazioko ordezkarien izendapena.

Alkateak akordioaren proposamena irakurri du:

"AKORDIO-PROPOSAMENA



Udalbatzako eskumena diren Organo kolegiatuetan izango diren korporazioko ordezkarien izendapena.

Akordioaren proposamena irakurri da, eduki hau duena:

“Toki Erakundeetako Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 38, c). artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, Alkatetza honek Udalbatzari proposatzen dio:

Lehena.- Korporazioko ordezkariak izendatzea hurrengo organo kolegiatuetan:

1.- AIARAKO KUADRILLA (3)

Titularrak:

- | | | |
|----|----------|----------------------------|
| 1. | EH Bildu | Joseba Vivanco Retes |
| 2. | EH Bildu | Arkaitz San Jose Martinez |
| 3. | EAJ | Encina Castresana Astarloa |

2.- URKIDETZA - UR PARTZUERGOA (1)

Titularra: Joseba Vivanco Retes.
Ordezkoa: Arkaitz San Jose Martinez.

3.- SUHILTZAILEEN PARTZUERGOA (1)

Titularra: Joseba Vivanco Retes.
Ordezkoa: Alazne Lafragua Ureta.

4.- ELKARKIDETZA

Titularra: Joseba Vivanco Retes.

5.- EUDEL

Titularra: Joseba Vivanco Retes.

6.- ARTEKO GURE AMA

Titularra: Arkaitz San Jose Martinez.
Ordezkoa: Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin.

7.- ZARAOBE INSTITUTUA

Titularra: Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin.
Ordezkoa: Arkaitz San Jose Martinez.

8 “ZABAIA” LANDA GARAPENERAKO ELKARTEA

Titularra: Joseba Vivanco Retes.
Ordezkoa: Unai Gotxi Kastrexana.

Bigarrena.- Izendapena izendatuei eta dagozkion organo kolegiatuei jakinaraztea”.
Horrela proposatzen du Alkate Presidente jaunak, Artziniegan, 2019ko ekainaren 20an”.



Bozkatu egin da:

Aldeko botoak:

Joseba Mirena Vivanco Retes, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin, Unai Gotxi Kastrexana eta Arkaitz San Jose Martinez, EH Bildu taldekoak(4); Encina Castresana Astarloa, Jose Miguel Vadillo Ribacoba eta Miren Izaskun Perez Barragan EAJ-PNV (3) alderdikoak; Joseba Elejalde Ribacoba P.P. taldekoa (1)

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Onartuta geratu da.

6.- Alkateordearen izendapenerako Alkatezaren ebazpenaren berri ematea.

Alkateak dekretua irakurri du:

“ALKATEZAREN DEKRETUA, 170 ZENBAKIDUNA, 2019ko ekainaren 9koa ALKATEORDEAREN IZENDAPENA

Ikusirik 2019ko maiatzaren 26an egindako udal hauteskundeak eta 2019ko ekainaren 15ean Tokiko Korporazio berria eratu zela. Tokiko Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.2 artikulua eta Toki Erakundeetako Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 46.1 artikulua esleitzen dizkidaten eskuduntzen arabera,

EBAZTEN DUT

LEHENA Artziniegako Udaleko Alkateorde modura izendatzea hurrengo zinegotzia:

UNAI GOTXI KASTREXANA jauna

Izendatutako Alkateordeari, aldezturik bere kargua onartu ondoren, halakotzat dagokio, Alkatea ordeztzea haren funtzio guztietan eta haren izendapenaren hurrenkeran, baldin eta bere eskuduntzak betetzea eragozten dion absentzia, gaixotasun edo eragozpenik balu.

BIGARRENA. *Izendatutako pertsonari ebazpen hau pertsonalki jakinaraztea, tazituki onartutzat joko dena kontrarik berariaz adierazi ezean; eta izendapenaren ebazpena Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialera igortzea bertan argitara dadin, aldi berean Ebazpena udaletxeko iragarki-oholean argitaratzea, Alkateak ebazpena sinatu eta hurrengo egunetik hasita ondorioak izatearen kalterik gabe.*

HIRUGARRENA. *Udalbatzari ebazpen honen berri ematea bertan egiten den lehen saioan.*

Hala agindu eta sinatzen du Joseba Vivanco Retes Alkate jaunak, Artziniegan, 2019ko ekainaren 19an".

Jose Miguel Vadillo: Zergatik ez duzu izendatu zerrendako bigarrena?

Alkatea: galdera horrek ere ez du... erabakia taldearena izan da, alderdiarena.

*Ayuntamiento de Artziniega
(Alava)*



*Artziniegako Udala
(Araba)*

Bertaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Joseba Mirena Vivanco Retes, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin, Unai Gotxi Kastrexana eta Arkaitz San Jose Martinez, EH Bildu taldekoak(4); Encina Castresana Astarloa, Jose Miguel Vadillo Ribacoba eta Miren Izaskun Perez Barragan EAJ-PNV (3) alderdikoak; eta Joseba Elejalde Ribacoba P.P. taldekoa (1)

Eta jorratzeko beste gairik gabe, amaitutzat eman zen saioa, lehenago aipatu egunaren arratsaldeko zortzietan. Eta guztiorren gainean, fede ematen dut.